

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure negozio ereduak funtziona dezan egin beharko ditugun funtsezko jarduerak dira hurrengo hauek:

Balorezko proposamena garatzea. Ezinbestekoa izango da gure helburua argi adieraztea, horrela ideia hori garatzeko garaian inongo arazorik ez izateko.

Bezeroarengana iristea. Garrantzi handikoa izango da bezeroak ondo informatuta izatea, hau da, enpresaren funtsezko helburua zein den ondo jakin beharko dute, horrela bion arteko konfiantza sendotzeko. Hau lortzeko, informazioko liburuxkak banatuko dizkiegu ikasleei eta irakasle guztiak jakinaren gainean egongo dira beraiek ere informazioa zabaltzeko.

Bezeroarekin harremanetan jartzea. Enpresaren eta bezeroen arteko harreman ezak erabateko porrota ekar dezake. Horregatik oso garrantzitsua da enpresak hartzen dituen erabaki edo jardura guztiak bezeroei iristea. Lehen aipatu dugun antzera, informaziozko liburuxkan agertuko litzake gure mugikor zenbakia eta gure posta elektronikoa.

Bezeroen arazoak konpontzea. Garrantzia handikoa da gure bezeroen arazo guztiak aztertzea. Izan ere horretan datza gure funtzio gorena. Guregana datozen lehenbizi arazoa aztertuko dugu eta jarraian aukera guztiak ikusi ondoren zuzendaritzarengana joango gara konponbide baten bila.

Zuzendaritzara iristeko bidea erraztea. Ezinbestekoa da gure komunikazioa ona izatea zuzendaritzarekin, gure bezeroen arazo guztiak jakinaren gainean edukitzeko.

